

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 28an hartutako erabakiaren laburpena: Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek ohiko etxebizitzan duten energia-gastuari aurre egiteko laguntza ekonomikoak emateko deialdi publikoa, 2016ko bigarren seihilekorako

BDNS (identifikatzailea): 321792

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>).

Lehena. Onuradunak

Eskabidea egiteko unean betebeharrak hauek betetzen dituzten pertsonak:

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzea pentsio-osagarri gisa.
2. Eskabidea aurkeztu den uneari dagokionez, azken 10 urteetan gutxienez 5 urtez Gasteizen erroldatuta egon izana, eta gutxienez urtebetez, modu jarraikian, eskabidea egin aurretik.
3. Ohiko etxebizitzarako elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen fakturak ordaintzea, zuzenean edo zeharka (etxejabeen elkarteari, errentatzaileari...). Laugarren oinarriko 2. atalean zehazten da nola egiaztatu betebeharrak hori.
4. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretako batean ez egotea.

Bigarrena. Helburua

Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek ohiko etxebizitzan duten energia-gastuari aurre egiteko laguntza ekonomikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzea, hau da, bigarren oinarrian zehazten diren pertsonen elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen hornikuntzagatik egin beharreko gastuari dagokiona.

Hirugarrena. Oinarriak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 28an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

30.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun natural, laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 28an

Gizarte Politikaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
ROSA ANA URTARAN URTARAN